

Ezkerra eta etorkizunaren utopia

(III)

Ezkerraren utopia zer den

Ezkerra utopikoa da, eta honek berekin dakarren guziaz: batez ere, ideologia zalea. Ez dago esan beharrik, ez dudala utopia hitza esanahi peioratiboan erabiltzen, guziz positiboan baizik. Aldatu egin nahi duenez gero, ezkerak irudipen bat, modelo edo ereduaren bat, proiektatzen du etorkizunean: ez bait du geroan (funtsean eskuindarrak nahi duen bezala) iraganaldia erreproduzitu nahi, zer bait guziz berria sortu baizik. Oraindik egon gabekoa du xede. Ezagutzen ez dena, egikaritu nahi du. Eta horixe da utopiko izatea. Beraz, etorkizuna ez da orainaren edo lehenaren dedukzio soil bezala bururutzen.

1. Honek ez du esan nahi, utopiak hodeietan asmatzen diren ipuinak direnik. Utopiak historiaren produktuak eta historiaren tresnak dira, historiaren bideak (irudimena zientzietan bezalaxe). Historiak, premian aurkiturik, bere burua lantzeko asmatzen ditu tresnaok, eta hain zuzen, etorkizuneko bideak urratzeko. "Es la historia misma (que es un material) la que se crea los instrumentos necesarios para su propia elaboración. Las utopías que intentan dar una nueva estructura a la historia son un producto de esa misma historia, la cual es (alegria, hein hotetan) una entidad anónima" (Kolakowski, El significado del concepto izquierda saikeran).

2. "Por otro lado, la historia es un producto humano". Hots, utopiak ere gizonen obra eta tresna dira. Hau da, gure esku dago, utopia horiek onargarri ala

kaltekor, irudipen ilargarit eta mistifikatu ala asmo baliotsu eta argigarri diren, aldian-aldian ikustea eta probatzea. Zeren-eta, utopiak errealidadea aldarazteko badira, errealidadeari dagokionak izan behar bait dute: errealidadeak eskatzen dituenak, eta errealidadeari tokatzen zaizkionak. (Beraz, "herbestetiko" ideien kontra sarri aurkitzen den errezela, ez da guziz bidegabekoa).

"Toda obra humana representa una transacción (konpromiso bat) entre el material y el instrumento": landu behar den ekia edo materia, historia da hemen; lanabesak utopiak dira. "Sin embargo, para que el producto no resulte monstruoso es indispensable una correspondencia mínima entre aquel y éste (lanabesaren eta ekaiaren artean, alegia), ya que no resulta posible limpiarse los dientes con una máquina perforadora ni tampoco se puede realizar una operación de cerebro con un lapicero. A veces se intenta hacerlo, pero en tal caso los resultados son muy poco satisfactorios". Behin baino gehiagotan sumatzen da hori: zenbat eta errealidade eskasagoa esketan, are utopia fantastikoagoak bururatu dira. Konpentsazio bezala, agian. Kontzientzia mistifikatuaren seinale bat da, nola nahi ere. Ez ote dago horrelako zerbit, guk hezkuntzari (pedagogiarri, arteari, fedeari eta besteri) eskatu nahi izaten diogun guzian?

"Las revoluciones sociales son una transacción (konpromiso bat) entre la utopia y la realidad histórica. La utopia es el instrumento de la revolución;

el material está constituido por la estructura del mundo humano con que nos encontramos y a la cual queremos dar una forma nueva. También en este caso el instrumento debe ser en cierta medida adecuado al material, para que el producto no resulte monstruoso, pues, para poner un ejemplo, no resulta posible enseñar a andar a un recién nacido". Hau da, utopiatan ere nolerebat errealista izan behar da. Aldian aldiko utopiak oraingo eta begien aurreko errealidadeekin ere kontaktatu behar du.

3. Gainera, utopiak langileari (ekintzaleari) dagokion modukoa izan behar du. Mundua ez du utopiak aldatzen, gizonek baizik. Eta edozein gizon es da ongi moldatzen edozein tresnarekin. Beraz, utopiak, errealidadeak inola eman ezindako gehiegiz eskatzerik ez dadukan moduan, gizon konkretu batzuek hartaz baliatu ahal izateko modukoa ere izan behar du. Zer egiten da, esaterako, langileria gehienbat analfabeto bati, Goethe eta Michelangelo aisa superatuko (omen) lituzkeen kultura proletario distiratsu eta garbi-garbia sortzera dei eginez? Desastre bat probokatzen da.

4. Beraz, laugarrenik eta azkenik, utopiak une konkretuari, garaia eta tokiari dagokiona izan behar du.

Baina bistan dago esandakoarekin, utopiaren eta errealidadearen arteko konpromisoa den utopia praktikoa bat ere badagoea. Bi mailatan har daiteke utopia. Hori ere kontsideratu beharrezkoa da.

JOXE AZURMENDI

Bankaetxe on batek arazo asko koponduko dizkizu. Zenbat eta eskurago orduan eta errezago.

B

Banco Guipuzcoano

gertuan daukazu, zure zerbitzuan prest eta gogotsu.

ZURETZAT